



Ajangizko Udala

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AJANGIZ
EN PLENO, CELEBRADA EL DIA 6 DE MAYO DE 2010.-**

Asistentes:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

En la Casa Consistorial de Ajangiz, siendo las 20:00 horas del 6 de mayo de 2010 y previa convocatoria cursada al efecto, se reúne el Ayuntamiento en Pleno en Sesión ordinaria, con la asistencia de los concejales arriba señalados.

A la hora expresada, el Alcalde Presidente, considerando que existe quórum suficiente, declaró abierta la sesión.

1.- LECTURA Y APROBACION SI PROCEDE DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.-

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión ordinaria celebrada el 18 de marzo de 2010, la misma es aprobada por unanimidad de los Corporativos presentes.

2.- DACION EN CUENTA Y RATIFICACION, SI PROCEDE, DE LOS DECRETOS DE ALCALDIA.-

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/32 de 15 de marzo.-** Adjudicación de la redacción, estudio de seguridad y salud y coordinación de las obras de acondicionamiento de la plaza de Mendieta.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°33/2010 de 18 de marzo.-** Licencia de actividad y obra para ampliación de centro tecnológico concedida a Maier Technology Centre S.Coop.

• **DECRETO DE ALCALDIA N° 2010/34 de 30 de marzo.-** Aprobación de la Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento de Ajangiz correspondiente al ejercicio de 2009.



Ajangizko Udala

• **DECRETO DE ALCALDIA N° 2010/35 de 31 de marzo.-** Aprobación del padrón del servicio de recogida de basuras correspondiente al 1er trimestre de 2010.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/36 de 31 de marzo.-** Subvenciones para el polideportivo.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/37 de 31 de marzo.-** Devolución del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica del ejercicio 2010 por baja definitiva del vehículo.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/38 de 16 de abril.-** Adjudicación de la asistencia técnica y dirección de obra del acondicionamiento del vial rural Maier-Mendieta, fase III.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/39 de 16 de abril.-** Aprobación del expediente de anulación de derechos pendientes de cobro procedentes del ejercicio 2009.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/40 de 19 de abril.-** Autorización para utilización de caminos públicos municipales para la prueba de ciclismo de montaña IV Atxarre Xtreme-Zabalia Memoriala del 13 de junio.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/41 de 23 de abril.-** Subvenciones para el polideportivo.

• **DECRETO DE ALCALDIA N°2010/42 de 23 de abril.-** Devolución del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica del ejercicio 2010 por baja definitiva del vehículo.

3.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL PADRON MUNICIPAL DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA 2010.-

Presentado el Padrón fiscal del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica de 2010, por unanimidad de los corporativos presentes se acuerda:

Primero.- Aprobar el Padrón fiscal del impuesto sobre Vehículos de Tracción mecánica del ejercicio 2010.

Segundo.- De conformidad con el artículo 124 de la Ley general Tributaria 230/63, de 28 de diciembre, y artículo 125.2 de la Norma Foral General Tributaria 3/86 de 26 de marzo, el presente anuncio surtirá efectos de notificación colectiva para los contribuyentes del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

El citado Padrón queda sometido a trámite de exposición pública durante el periodo de 15 días, contados a partir de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, para que los interesados puedan revisarlo y formular las alegaciones o reclamaciones que estimen pertinentes.



Ajangizko Udala

En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, transcurrido el citado plazo el Padrón se entenderá definitivamente aprobado.

Plazo, lugar y medios de pago

.- Pago voluntario sin recargo.

a) Plazo: del 1 al 30 de junio de 2010 (ambos días inclusive)

b) Lugar y forma de pago: Los recibos no domiciliados se podrán abonar mediante transferencia bancaria o en las oficinas municipales en horario de atención al público, presentando el impreso correspondiente. Los contribuyentes podrán domiciliar los recibos en entidades bancarias.

La no recepción de los impresos o la existencia de error en los recibos no exime de la obligación del pago.

Transcurrido el plazo de pago voluntario sin que éste se hubiera satisfecho, en aplicación de los artículos 95 y 96 del reglamento General de Recaudación, le será exigido el pago por vía de apremio con el recargo del 20% por intereses de demora más costas y gastos de procedimiento.

De conformidad con las disposiciones vigentes, no puede efectuarse alta, transferencia o baja del vehículo si no se acredita haber pagado este impuesto.

4.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA ULTIMA CERTIFICACION- LIQUIDACION DE LAS OBRAS DE ACONDICIONAMIENTO DEL CAMINO RURAL MAIER-MENDIETA, FASE II.-

Ajangizko Udalak 2009ko irailaren 3an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanak (II. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 248.894,20 euroko kostuarekin.

2009ko azaroaren 5ean ospatutako bilkuran, lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, aurkeztutako 16.944,94 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-176 faktura onartu ziren.

2009ko abenduaren 14an ospatutako bilkuran, Ortiz de Zarate jaunak aurkeztutako 45.018,52 euroko lanen 2. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-188 faktura onartu ziren.

2010eko urtarrilaren 21ean ospatutako bilkuran, Ortiz de Zarate jaunak aurkeztutako 138.450,44 euroko lanen 3. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-209 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen azken likidazioa ziurtagiria aurkeztu du 23.285,11 euroko kostuarekin.



Ajangizko Udala

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 23.285,11 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako A10-019 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanen II. faseko azken ziurtagiri-likidazioa onartzea, 23.285,11 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 23.285,11 euroko kopuru orokorra duen A10-019 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezzen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

5.- ADJUDICACION, SI PROCEDE, DE LAS OBRAS DE REHABILITACION DE LA PLAZA DE MENDIETA.-

El Pleno del Ayuntamiento en sesión de 18 de marzo de 2010 aprobó los pliegos administrativos y técnicos para la adjudicación de las obras de mejora de electrificación en Kanpantxu mediante procedimiento negociado sin publicidad. Aprobados los pliegos se envió invitación a tres empresas:

- Suña Eraiketak
- Construcciones Intxausti S.A.
- Construcciones Zabalandi S.L.

De las tres empresas Construcciones Intxausti S.A. y Construcciones Zabalandi S.L. han presentado propuestas. Suña Eraiketak ha comunicado telefónicamente que por motivos de trabajo no están interesados en participar en el proceso.

Atendiendo a las propuestas recibidas y conforme a los informes emitidos por los técnicos municipales, tras la negociación mantenida con las empresas la propuesta más ventajosa ha resultado ser la de Construcciones Zabalandi S.L. de acuerdo con las siguientes condiciones:

Proposamen ekonomikoa Propuesta económica		Hobekuntzak Mejoras	Exekuzio Epea / Plazo de ejecución	
Lizitaziokoa: Precio licitación:	Eskainitakoa: Oferta:	7.338,30 €	Lizitaziozkoa: Plazo licitación:	Eskainitakoa: Oferta:
48.108,00 €	40.769,70 €		2 hilabete	1 hilabete

Con relación a la creación de empleo, su propuesta contempla la ocupación de:

KATEGORIA / CATEGORIA	PERTSONA KOPURUA / Nº PERSONAS	LANDALDIA / JORNADA	EPEA (Hilabete) / PERIODO (MESES)
Titulados medios	1	50%	0,50
Encargados	1	100%	1
Oficiales	1 2	75% 50%	1,75



Ajangizko Udala

Peones	1	75%	1,75
	2	50%	
Personal Administrativo	1	25%	0,25

Atendiendo a lo expuesto, el Pleno del Ayuntamiento por unanimidad de sus miembros, acuerda:

Primero.- Adjudicar provisionalmente a Construcciones Zabalandi S.L. la ejecución de las obras de rehabilitación de la Plaza de Mendieta, de acuerdo con el proyecto y los pliegos aprobados por el Pleno de la Corporación, así como con la oferta presentada por la empresa, con un coste total de 48.108,00 euros IVA, Beneficio Industrial y demás incluidos.

Segundo.- Para que la adjudicación provisional devenga definitiva, el interesado deberá presentar en el Ayuntamiento en el plazo de cinco días hábiles la siguiente documentación:

- Declaración responsable de no estar incurso en prohibición de contratar.
- Documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social
- Documento justificativo de haber consignado el aval del 5% del precio de adjudicación (2.073,62 €).

Si transcurrido este plazo la documentación señalada constara en el Ayuntamiento, la adjudicación provisional devengará definitiva sin necesidad de adoptar un nuevo acuerdo.

Tercero.- Dar cuenta del presente acuerdo al interesado para su conocimiento y efectos oportunos.

6.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA ADHESION AL COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD LOCAL EN LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO; CONSOLIDACION DE UDALSAREA 21 (RED VASCA DE MUNICIPIOS HACIA LA SOSTENIBILIDAD.-

Con fecha 20 de diciembre de 2002 se firmó el convenio de constitución de UDALSAREA 21, Red Casca de Municipios hacia la sostenibilidad. Esta Red tiene vocación de aglutinar a todos los Municipios de la CAPV comprometidos con la implantación de la Agenda Local 21.

A pesar de seguir desarrollando actividades, el Convenio ha expirado. Para solucionar la situación se ha presentado el nuevo marco de regulación de la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad, Udalsarea 21. Este nuevo marco trata de mantener el espíritu de colaboración interinstitucional, incorporando ahora además a las administraciones competentes en materia de agua, energía y transporte.

Presentado el Compromiso de Sostenibilidad Local de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Consolidación de Udalsarea 21, los concejales presentes por unanimidad acuerdan:



Ajangizko Udala

Primero.- Aprobar la adhesión al compromiso por la sostenibilidad local en la Comunidad Autónoma del País Vasco; Consolidación de Udalsarea 21 (Red Vasca de municipios hacia la sostenibilidad), asumiendo las responsabilidades que de él se derivan.

Segundo.- Dar cuenta del presente acuerdo a la Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A. para su conocimiento y efectos oportunos.

7.- APROBAR, SI PROCEDE, EL ACUERDO PARA SUSCRIBIR DENTRO DEL MARCO ESTABLECIDO POR EL COMITÉ MaB ESTATAL EL CONVENIO DE COLABORACION Y A REALIZAR LAS ACCIONES QUE CORRESPONDA EJECUTAR, DE ACUERDO CON EL PRESUPUESTO PRESENTADO Y CONDICIONES DE FINANCIACION ESTABLECIDAS EN EL MARCO, PARA LA ACTUACION CONSISTENTE EN LA EDIFICACION DE UN FRONTON EN MENDIETA.-

El Comité MaB estatal ha establecido el Marco para la suscripción de convenios de colaboración entre el *Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino* y las *Entidades Gestoras de Reservas de la Biosfera* para la realización de actuaciones de apoyo a la coordinación y al desarrollo sostenible.

Para ello, se cofinancian actuaciones mediante la realización de convenios. El Marco, en el caso de actuaciones impulsadas por entidades locales, prevé la financiación como máximo de 2/3 partes del presupuesto de la actuación, debiendo el municipio hacerse cargo del 1/3 restante.

Los convenios se pueden suscribir con los municipios integrados en el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que realicen actividades incluidas en los Programas de actuación a presentar por la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Como requisito para la suscripción de los convenios se deben incluir los documentos que acrediten la disposición de los ayuntamientos para la suscripción del convenio y para las acciones que les corresponda ejecutar, con su presupuesto y condiciones de financiación establecidas en el Marco.

Presentado el Marco de los convenios de colaboración elaborado por el MaB, los concejales presentes por unanimidad acuerdan:

Estar dispuestos a suscribir dentro del Marco establecido por el Comité MaB estatal el convenio de colaboración y a realizar las acciones que corresponda ejecutar, de acuerdo con el presupuesto presentado y condiciones de financiación establecidos en el Marco, para la actuación consistente en la construcción del frontón cubierto en Mendieta.

8.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA MOCION “EGIA NAHI DUGU!” PRESENTADO POR LA ALCALDIA.-

El concejal D. Angel Luis Uribarri Gondra presenta y da lectura a la moción “EGIA NAHI DUGU!”:

“Jon Anza Ortuñez euskal herritarrek 2009ko apirilaren 18an Baionatik Okzitaniako Tolosara |



Ajangizko Udala

zihuan treña hartu zuen. Hori izan zen bere senideek Jon ikusi zuten azken momentua. Hilabete beranduago, Maitzaren 18an, Baionako fiskaltzak ikerketa zabaldu zuen senideen desagerpen salaketaren ostean.

Ia urte bete beranduago, 2010eko Martxoaren 11an, Jonen gorpua izan zitekeena Okzitaniako Tolosako hil-etxean aurkitua izan zela zabaldu zuten zenbait hedabide frantses eta espainiarren aldetik. Hedabidetan zehar gertatutakoaren inguruko informazio bat zabaltzen zen bitartean, Jonen sendiari aipatu hirira hurbitzeko deia helarazi zioten gorpua Jonena zen egiazta zezan. Hara iristerakoan baina, oztopo eta debekua bata bestearen atzetik iristen hasi zitzaizkion, gorpua ikusteko debekua ezartzeraino. Azkenean konfidantzazko sendagile batek egiaztatu ahal izan zuen gorpua Jonena zela.

Urte honetan guztian Jonen inguruko berririk izan ez arren, jaso ditugu bere desagerpenari loturiko albiste eta informazio ezberdinak. Informazio hauek guztiek desagerpen honen gaineko susmorik ilunenak indartzea ekarri dute:

- ETA erakundeak Jonen militantziaren berri eman zuen. Gaineratu zuen Jonek erabiltzen zuen zulo bat poliziek aurkitu zutela eta beraz poliziak jakitun zirela Jonen militantziaz, Jonen hatz markak bertan aurkitzearen ondorioz.
- Frantziar poliziak Jonen senideei jakinerazi zien beraien hipotesien artean zegoela Jonen desagerpenean espainiar poliziek esku haru izana.
- Gara egunkariak publiko egindako informazio batek Jonen desagerpena Espainiako polizien bahiketaren ondorioz etorri zela argitu zuen.
- Joseba Egibarrek zuzenean galdetu zion Rubalcabari ea Jon Anzaren desagerpenean polizia espainiarrek parte hartu ote zuten, herri honetan aurrez izandako antzeko kasuak gogora ekarri.
- Jacques Massey frantziar kasetari eta irakasle ezagunak buruturiko hainbat ikerketa eta elkarrizketen ondoren Jon Anza Espainiako poliziek baitu eta hil zutela ondorioztatzera iritsi zen.
- Pariseko Liberation egunkariak buruturiko erreportaiak norabide berean landa zuen gaia, Espainiako Polizien inplikazioaren susmoa indarra hartzen ari dela azpimarratuz.

Honetaz gain gogora ekarri behar dugu bai Espainiako Entzutegi Nazionalak, bai Baionako auzitegiak Jon Anzaren desagerpena argitzeko ikerketak abian dituztela.

Okzitaniako Tolosako hil-etxean Jonen gorpua agertu ondoren, Baionako prokuradoreak honako a azaldu zuen bertsio ofizial moduan:

- Apirilaren 29an Jon Okzitaniako Tolosako parke batean aurkitua izan zela burua jardineran batean zuela.
- Pertsona particular batek emergentzi zerbitzuak deitu eta hauek bihotz masaje bat eman ostean Jonek pultsua berreskuratu zuela.
- Tolosako Purpan ospitalera garraiatua izan zela.
- Hortik eta ondorengo egunetan konorterik gabe egon zela eta ez zuela konortea berreskuratzea lortu.
- 11 egunetara, Maitzaren 11n, ospitale horretan zendu zela.
- Orduz geroztik gorpua Tolosako hil etxean gordeta egon dela, identifikatu gabeko pertsona moduan.
- 2010eko Martxoaren 11 baino egun batzuk lehenago Medikuntza Legaleko Institutuko funtzionario batek ere lagun polizia bati gorpu ez identifikatu baten izana azaldu ziola.
- Polizia honek Jonen arropan Baionatik Tolosarako 2009ko Apirilaren 18rako eta itzulerarako Apirilaren 20rako bi tren txartel aurkitu zituela, eta Jonen gorpua izan zitekeela ondorioztatu zuela.



Ajangizko Udala

Ez dugu sinisten Frantziar Poliziak zabaldu duen bertsioa, eta hainbat galdera mahai gainean jarri nahi ditugu:

- *Non egon zen Jon desagertua apirilaren 18tik 29ra bitarte?*
- *Nork deitu zuen Jon banku batean aurkitu zuela esanez?*
- *Nork jaso zuen Jon eta ospitalera eraman?*
- *Non dago Jonek zeraman dirua?*
- *Zein mediku arduratu zen Jonen egoeraz bera ospitalean egon zen bitartean?*
- *Non daude Jonen inguan egindako mediku-parteak?*
- *Non dago Jonen hiltze agiria?*
- *Ospitaleak Jonen heriotzaren berri epaile eta polizia eman zien. Zer egin zuten poliziek edo epaileek informazio honekin?*
- *Ikertu al zuten hilda agertu zen gorpua norena izan zitekeen?*
- *Poliziak bazuen aurrez Jonen ADN-a, baita senideena ere. Gorpuari egin ahal zizkioten ADN frogak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?*
- *Baionatik Tolosara zihoan pertsona baten desagertzea lau haizetara zabaldu da azken hilabeteetan. Data antzekotan bidai horretako tren txartela zeraman pertsona ezezagun bat agertu da eta ospitalean hil. Nola da posible orain arte loturarik egin ez izana?*
- *Jonen desagertzearen inguruko ikerketan zehar ez zen bere berri galdetu hiriburu honetako ospitale nagusian? Galdetu bazen, zein izan zen jasotako erantzuna?*
- *Zergatik familiari konfirmatu aurretik barria komunikabideetan filtratu du poliziak?*
- *Zergatik ez zaio utzi familiaren konfidantzazko medikuari autopsian bertan egoten?*
- *Zergatik guardia zibil batzuk Tolosako hotel batetik presaka eta korrika atera ziren, desagertzearen berri eman zen egun berean?*

Jonen heriotza ulertzeko argigarriak izan daitezke azken bi urteotan euskal herrian eman diren bahiketa salaketak ere. Juan Mari Mujika, Lander Fernandez, Alain Berastegi eta Dani Saralegi euskal herritarrek salaketa juridikoa burutu zuten epaitegietan eta salaketa publikoa egin zuten komunikabideen aurrean, gertatu zitzaizena azalduz eta salatuz. Lauek polizia indarrek bahitu eta beraiekin kolaboratzeko mehatxu egin zieten azaldu zuten, horretarako presioak eginez, eta Berastegiren kasuan torturak erabiliz.

Aurrez aipatu ditugun gertaera nahiz informazioek, eta Euskal Herrian bizi dugun errepresio egoerak Jon Anza Espainiako polizia indarrek atxilotua izan zitekeela pentsatzera garamatza.

Jonen desagertzearen aurrean udal honek honako adierazpenarekin bat egiten du:

1.- Jon Anza euskal herritarrekin gertatutakoaz benetako kezka adierazi nahi dugu. Jonen senide eta hurbilekoei babesa eta elkartasuna helarazten die udal honek.

2.- Anne Kayanakis Baionako prokuradoreari zuzentzea ondorengoa eskatuz; Jonen desagertzearen inguruko ikerketa sakona egin dezala eta ez dezala inongo aukerarik baztertu, bereziki estatuen gerra zikinarena, horretarako beharrezko tresna eta galdeketa guztiak eginez.

3.- Jonen heriotzean Espainiako Poliziak nahastuak egon daitezkeenaren susmoak gure egiten ditugu. Jonen desagertzea ikertzeko irekiak daude prozedura judicial guztiak bururaino eramateko deia egiten dugu.

4.- Euskal Herrian ematen ari diren gerra zikinaren adierazpenarekin amaitzeko deia egiten dugu. Euskal Herrian ezarri den errepresio egoerarekin amaitzeko deia egiten dugu, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa elkarriketaren konpontzeko nahia agertzen dugularik.

5.- Adierazpena honen berri herritarrei, Jon Anzaren familiari, hedabideei eta Baionako prokuradoreari zein Frantziako gobernuko presidenteari ematea.

Presentada la moción a votación, es aprobada por unanimidad por los concejales asistentes.



Ajangizko Udala

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

- Roman Etxeandia zinegotzi jaunak, Alkateak joandako batzarrean Patxi Sierra Diputatu jaunarekin batzarra izan behar zuela aipatu zuela esaten du. Zein da batzar haren emaitza?

Alkate jaunak, Sierra jaunarekin izandako batzarrean argi utzi omen zuen aurtongo aurrekonturako diru-laguntzarik jasotzea zail izango zela. Datorren urtean azpiegituretarako diru-laguntza dekretuan sartu ahal izango litzateke agian. Horrez gain, Kirol arloko zuzendariarekin, Iñaki Mujika, ere batzarra izan zuela aipatzen du Alkateak. Aurton ez dituzte kirol ekipamentuak sortzeko laguntzak atera, daudenak konpontzeko laguntzak baizik. Batzartutakoan, laguntza hauetara aurkezten ziren udal kopurua kontutan hartuta, dirurik sobratuko balitz zerbait egiterik egongo zela aipatu zuen, eta hilabete barru deitezketan geratu ziren. Hilabete hori pasata berrogei bat eskaera aurkeztu direla eta aurton diru-laguntzarik ezin egongo dela aipatu zuen, baina halere ahaleginak egingo zituela eta beste hilabete barru hiztegitekotan geratu ziren.

Alkateak azaltzen duenez, frontoirako BBK, Ipar Kutxa, Iberdrola... eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen diru-laguntza deialdirako ere aurkeztu da proiektua (EREIN eta MaBerako). Oraindik ahoz Iberdrolak bakarrik erantzun du, frontoirako argindarra jartzeko engantxeak bere kontu egingo zituela esanez. Halere oraindik zehaztu gabe dago.

Lanen exkuzioari dagokionez, zimentazioa egiten dabilta. Orain kontentzio hormaren zati bat egingo dute egindako zimentazioa finkatu eta aurrera jarraitzeko. Bariku guztietan etortzen dira lanen zuzendaritza teknikoak, eta segurtasun eta osasun arlokoak ere pasatu dira. Enpresak bestalde hartu du lanetarako Udaletxetik eman zitzaion zerrendatik pertsona bat.

- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko II. Faseko lanen exekuzioa dela eta, Alkateak 25.195,19 euroko Udalaren aldeko diferentzia egon dela aipatzen du. Diferentzia hau exekuzioan azkenik eskoilera lana gutxitu izanaren ondorio izan da. Kopuru hori 2009ko aurrekontuko ahorro modura geratzen da.

Alkateak azaltzen duenez, Maier- Mendieta landabidea egokitzeko lanen III. faserako, Bizkaiko Foru Aldundiak 86.338,92 euroko diru-laguntza onartu du. Obra honetan bi tubo sartuko dira aurreko fasetako lanarekin jarraituz, gerora etorri daitezkeen zerbizuetarako. Bieskotik Gorganara doa azken fase hau, eta afekatutako jabe guztiek eman dute beraien oneritzia. Horrez gain, bide ondotik doan telefonikako línea bat lurperatzea ere onartu da horretarako Telefonicarekin hitzeginda. Horrek gaur egun bide onadoan dauden zenbait poste kentzea ekarriko du. Gaur egun dauden faroletako batzuk ere kendu egingo dira kopurua gutxituz eta horrekin gaur egun argirik ez duten beste gunek batzuei argia jartzeko aukera zabalduz. Obrak hastekotan daude, jaiak eta gerorarte itxarotea eskatu zaie; maiatza bukaerarako.

- Ospitaleko obrak direla eta, argia Ajangizko bidean zehar eramatea onartu da, horren truke Osakidetza Ormetxe eta Kasamene inguruan farolak jarriko dituztelarik. Gainera konduzioa bide publikotik egiterakoan, bide horrek jasotzen dituen urak batzeko kuneta egitea eskatu zaie, horrekin besteak beste Kasamene urarekin dituen arazoak konpontzeko.

- Alkateak, Itxaro Intxausti arkitekto berria lanean hasi dela aipatzen du. Astero barikuetan



Ajangizko Udala

etortzen da bederatzietatik aurrera. 1.484 euro ordaintzen zaizkio zerbitzuagatik, Humbertori baino 352 euro gehiago, baina ordu gehiago ere sartzen ditu.

- Pertzamendi Txokoko arduradunekin egon dela aipatzen du Alkateak. Udaletik, berogailua eta argindar gastua beraiek ordaindu behar dutela azaldu zaie, eta konforme agertu dira.

- Maiatzak 23an Ajangizko Mugetatik ibilaldia ospatuko da. Ibilbidea antolatzeko lanetan herriko jendeak osatutako talde bat ari da, Gernikako mendi taldearekin batera. Ekintza honetarako Maierek 600 euro eman ditu, Lurraskak 200 euro emango dituela esan du, 100 euro Zurichetik, 100 € Garatxenak... Inskripzioa egiteko kontu zenbaki bat zabaldu dute, eta inskripzio eta diru-laguntzekin Udalak ez du ezer jarri beharko. Inskripzioaren truke riñonera bat eta hamaiketakoa eskainiko zaie parte hartzaileei.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la Sesión a las veintiuna horas de lo cual doy fe como Secretaria interina de la Corporación, con el Visto Bueno del Sr. Alcalde Presidente.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA